| | 2014 | 563 | 447 | 578 | 540 |
| | 2015 | 612 | 480 | 618 | 654 |
| | 2016 | 627 | 521 | 635 | 619 |
| | 2017 | 700 | 465 | 710 | 787 |
| | 2018 | 778 | 611 | 710 | 982 |
| 25-29 urte | 2007 | 501 | 524 | 481 | 519 |
| | 2008 | 561 | 491 | 555 | 685 |
| | 2009 | 459 | 425 | 459 | 531 |
| | 2010 | 500 | 411 | 496 | 590 |
| | 2011 | 499 | 438 | 480 | 603 |
| | 2012 | 471 | 409 | 475 | 501 |
| | 2013 | 451 | 373 | 459 | 453 |
| | 2014 | 460 | 344 | 474 | 438 |
| | 2015 | 498 | 366 | 504 | 542 |
| | 2016 | 513 | 406 | 520 | 506 |
| | 2017 | 589 | 353 | 597 | 676 |
| | 2018 | 661 | 493 | 592 | 866 |
| 30-34 urte | 2007 | 439 | 462 | 418 | 457 |
| | 2008 | 493 | 424 | 486 | 618 |
| | 2009 | 395 | 362 | 394 | 468 |
| | 2010 | 429 | 340 | 440 | 520 |
| | 2011 | 421 | 360 | 400 | 526 |
| | 2012 | 389 | 328 | 392 | 420 |
| | 2013 | 372 | 295 | 379 | 375 |
| | 2014 | 382 | 266 | 395 | 361 |
| | 2015 | 430 | 298 | 435 | 475 |
| | 2016 | 448 | 341 | 454 | 441 |
| | 2017 | 526 | 291 | 535 | 615 |
| | 2018 | 600 | 432 | 531 | 806 |

# 10. Etxebizitza libre bat alokatzeko behar den diru-sarreren igoera

## DEFINIZIOA:

Zer ehunekotan igo beharko litzatekeen 18-34 urte bitarteko gazte soldatadun baten hileko soldata garbia, merkatu libreko etxebizitza bat alokatzeko gehienez bere hileko soldataren % 30 bideratuko balu.

Etxebizitza libre bat alokatzeko diru-sarreretan behar den igoeraren bilakaera EAEn (% / soldata garbia)




Etxebizitza libre bat alokatzeko diru-sarreretan behar den igoeraren bilakaera EAEn, lurralde historikoen arabera (% / soldata garbia)

| | Euskadi | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
|---|---|---|---|---|
| 2007 | 130,8 | 138,2 | 123,9 | 137,6 |
| 2008 | 131,7 | 116,4 | 128,5 | 164,1 |
| 2009 | 108,5 | 101,5 | 107,0 | 127,8 |
| 2010 | 115,7 | 95,9 | 113,3 | 139,1 |
| 2011 | 111,8 | 98,4 | 105,7 | 138,7 |
| 2012 | 105,3 | 91,6 | 104,8 | 109,2 |
| 2013 | 101,6 | 83,7 | 102,1 | 104,0 |
| 2014 | 105,3 | 76,9 | 107,8 | 101,3 |
| 2015 | 119,4 | 86,0 | 120,0 | 124,5 |
| 2016 | 117,7 | 91,1 | 118,6 | 117,4 |
| 2017 | 141,8 | 81,4 | 143,0 | 166,3 |
| 2018 | 156,6 | 114,6 | 138,5 | 210,4 |

**10.taula.** Etxebizitza libre bat alokatzeko behar den diru-sarreren igoeraren bilakaera, sexuaren eta adin-taldeen arabera (% / soldata garbia)

| | | Euskadi | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
|---|---|---|---|---|---|
| Emakumeak 18-34 urte | 2007 | 160,8 | 169,2 | 153,1 | 165,0 |
| | 2008 | 159,4 | 142,3 | 155,9 | 195,7 |
| | 2009 | 126,2 | 118,6 | 124,6 | 147,2 |
| | 2010 | 133,0 | 111,6 | 130,4 | 158,2 |
| | 2011 | 135,4 | 120,6 | 128,6 | 165,3 |
| | 2012 | 128,2 | 113,0 | 127,7 | 138,4 |
| | 2013 | 113,3 | 94,3 | 113,8 | 115,7 |
| | 2014 | 122,4 | 91,7 | 125,2 | 118,1 |
| | 2015 | 139,6 | 103,1 | 140,2 | 153,5 |
| | 2016 | 142,3 | 112,7 | 143,3 | 142,0 |
| | 2017 | 165,7 | 99,3 | 167,0 | 192,6 |
| | 2018 | 182,9 | 136,6 | 162,9 | 242,3 |
| Gizonak 18-34 urte | 2007 | 106,8 | 111,4 | 100,6 | 110,9 |
| | 2008 | 110,7 | 96,7 | 109,8 | 140,1 |
| | 2009 | 90,8 | 84,4 | 89,4 | 108,5 |
| | 2010 | 96,2 | 78,2 | 94,0 | 117,5 |
| | 2011 | 90,2 | 78,2 | 84,7 | 114,3 |
| | 2012 | 82,7 | 70,5 | 82,3 | 90,8 |
| | 2013 | 87,6 | 70,9 | 88,0 | 89,7 |
| | 2014 | 87,1 | 61,3 | 89,5 | 83,5 |
| | 2015 | 97,7 | 67,6 | 98,2 | 109,2 |
| | 2016 | 102,7 | 78,0 | 103,5 | 102,5 |
| | 2017 | 123,8 | 67,9 | 124,9 | 146,4 |
| | 2018 | 138,9 | 99,8 | 122,0 | 189,0 |
| 18-24 urte | 2007 | 187,2 | 196,4 | 185,8 | 195,6 |
| | 2008 | 210,2 | 189,7 | 206,0 | 253,5 |
| | 2009 | 185,6 | 176,0 | 183,6 | 212,1 |
| | 2010 | 183,3 | 157,2 | 185,6 | 214,0 |
| | 2011 | 211,4 | 191,7 | 202,3 | 250,9 |
| | 2012 | 209,0 | 188,4 | 208,3 | 222,7 |
| | 2013 | 206,0 | 178,8 | 206,7 | 209,5 |
| | 2014 | 200,0 | 158,6 | 203,8 | 194,1 |
| | 2015 | 235,2 | 184,2 | 236,1 | 254,6 |
| | 2016 | 248,2 | 205,7 | 249,6 | 247,8 |
| | 2017 | 286,8 | 190,2 | 288,7 | 326,0 |
| | 2018 | 310,5 | 243,2 | 281,5 | 396,5 |
| 25-29 urte | 2007 | 128,9 | 136,2 | 122,1 | 135,6 |
| | 2008 | 137,2 | 121,5 | 134,0 | 170,4 |
| | 2009 | 110,2 | 103,1 | 108,7 | 129,7 |
| | 2010 | 118,6 | 98,5 | 116,2 | 142,3 |
| | 2011 | 125,7 | 111,5 | 119,2 | 154,4 |
| | 2012 | 122,3 | 107,5 | 121,8 | 132,2 |
| | 2013 | 120,2 | 100,6 | 120,8 | 122,8 |
| | 2014 | 119,5 | 89,2 | 122,2 | 115,2 |
| | 2015 | 133,1 | 97,6 | 133,7 | 146,6 |
| | 2016 | 139,7 | 110,5 | 140,7 | 139,5 |
| | 2017 | 165,4 | 99,1 | 166,8 | 192,3 |
| | 2018 | 179,8 | 134,0 | 160,1 | 238,5 |
| 30-34 urte | 2007 | 97,1 | 103,4 | 91,3 | 102,9 |
| | 2008 | 103,4 | 90,0 | 100,6 | 131,8 |
| | 2009 | 82,2 | 76,1 | 80,9 | 99,1 |
| | 2010 | 87,0 | 69,8 | 91,1 | 107,3 |
| | 2011 | 88,5 | 76,7 | 83,1 | 112,5 |
| | 2012 | 83,2 | 71,0 | 82,8 | 91,4 |
| | 2013 | 81,9 | 65,7 | 82,3 | 84,0 |
| | 2014 | 82,6 | 57,4 | 84,9 | 79,1 |
| | 2015 | 97,3 | 67,3 | 97,9 | 108,8 |
| | 2016 | 103,6 | 78,7 | 104,4 | 103,3 |
| | 2017 | 125,8 | 69,4 | 127,0 | 148,7 |
| | 2018 | 140,1 | 100,8 | 123,1 | 190,4 |

GAZTEEN EUSKAL
BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO
DE LA JUVENTUD

# III. Atala



# Etxebizitza babestua eskuratzearen inguruko adierazleak

# Etxebizitza babestua eskuratzearen inguruko adierazleak

| | |
|---|---|
| **11.** Etxebizitza babestu bat jabetzan eskuratzeko kostua | **% 32,2** |
| **12.** Etxebizitza babestu bat alokairuan eskuratzeko kostua | **% 23,9** |

# 11. Etxebizitza babestu bat jabetzan eskuratzeko kostua

**DEFINIZIOA:**

18-34 urte bitarteko gazte soldatadun batek bere hileko soldata garbiaren zer proportzio bideratu beharko lukeen bere kabuz etxebizitza babestu bat erosteko sinatutako hipotekaren lehen kuota ordaintzera.

Etxebizitza babestu bat jabetzan eskuratzeak dakarren kostuaren bilakaera EAEn (% / soldata garbia)




Etxebizitza babestu bat jabetzan eskuratzeak dakarren kostuaren bilakaera EAEn, lurralde historikoen arabera (% / soldata garbia)

| | Euskadi | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
|---|---|---|---|---|
| 2007 | 33,0 | 37,0 | 23,1 | 21,3 |
| 2008 | 36,4 | 39,6 | 20,8 | 30,9 |
| 2009 | 25,0 | 25,6 | 13,4 | 20,8 |
| 2010 | 25,5 | 25,3 | 18,9 | 27,6 |
| 2011 | 32,7 | 34,4 | 34,2 | 35,5 |
| 2012 | 30,3 | 30,2 | 27,3 | 28,6 |
| 2013 | 28,7 | 25,5 | 28,2 | 36,3 |
| 2014 | 30,8 | 30,2 | 29,7 | 31,3 |
| 2015 | 32,9 | 26,1 | 34,3 | 30,8 |
| 2016 | 31,6 | 28,3 | 30,2 | 34,2 |
| 2017 | 31,3 | 29,6 | 30,0 | 32,2 |
| 2018 | 32,2 | 31,5 | 32,6 | 34,1 |

GAZTEEN EUSKAL BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO DE LA JUVENTUD

**11. taula.** Etxebizitza babestu bat jabetzan eskuratzeak dakarren kostuaren bilakaera, sexuaren eta adin-taldeen arabera (% / soldata garbia)

| | | Euskadi | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
|---|---|---|---|---|---|
| Emakumeak 18-34 urte | 2007 | 37,3 | 41,9 | 26,1 | 23,8 |
| | 2008 | 40,8 | 44,3 | 23,2 | 34,6 |
| | 2009 | 27,1 | 27,8 | 14,6 | 22,5 |
| | 2010 | 27,6 | 27,4 | 20,4 | 29,9 |
| | 2011 | 36,3 | 38,2 | 38,0 | 39,5 |
| | 2012 | 33,7 | 33,6 | 30,3 | 32,5 |
| | 2013 | 30,4 | 27,0 | 29,8 | 38,4 |
| | 2014 | 33,4 | 32,8 | 32,2 | 34,0 |
| | 2015 | 36,0 | 28,5 | 37,5 | 34,8 |
| | 2016 | 35,2 | 31,5 | 33,6 | 38,1 |
| | 2017 | 34,3 | 32,5 | 33,0 | 35,4 |
| | 2018 | 35,5 | 34,8 | 35,9 | 37,6 |
| Gizonak 18-34 urte | 2007 | 29,6 | 32,9 | 20,7 | 18,9 |
| | 2008 | 33,1 | 36,0 | 19,1 | 28,1 |
| | 2009 | 22,8 | 23,4 | 12,3 | 19,0 |
| | 2010 | 23,2 | 23,0 | 17,2 | 25,2 |
| | 2011 | 29,4 | 30,9 | 30,7 | 31,9 |
| | 2012 | 27,0 | 26,9 | 24,3 | 26,0 |
| | 2013 | 26,7 | 23,7 | 26,2 | 33,8 |
| | 2014 | 28,1 | 27,6 | 27,1 | 28,6 |
| | 2015 | 29,7 | 23,5 | 31,0 | 28,7 |
| | 2016 | 29,4 | 26,3 | 28,1 | 31,9 |
| | 2017 | 28,9 | 27,4 | 27,8 | 29,8 |
| | 2018 | 30,0 | 29,4 | 30,3 | 31,7 |
| 18-24 urte | 2007 | 41,1 | 46,1 | 29,5 | 26,5 |
| | 2008 | 48,8 | 53,0 | 27,8 | 41,3 |
| | 2009 | 34,2 | 35,0 | 18,4 | 28,4 |
| | 2010 | 33,5 | 33,3 | 25,3 | 36,3 |
| | 2011 | 48,1 | 50,5 | 50,3 | 52,2 |
| | 2012 | 45,7 | 45,5 | 41,1 | 44,1 |
| | 2013 | 43,6 | 38,7 | 42,8 | 55,1 |
| | 2014 | 45,0 | 44,2 | 43,4 | 45,8 |
| | 2015 | 50,3 | 39,8 | 52,5 | 48,7 |
| | 2016 | 50,6 | 45,3 | 48,2 | 54,8 |
| | 2017 | 50,0 | 47,3 | 48,0 | 51,5 |
| | 2018 | 51,5 | 50,4 | 52,1 | 54,5 |
| 25-29 urte | 2007 | 32,7 | 36,7 | 22,9 | 21,2 |
| | 2008 | 37,3 | 40,5 | 21,3 | 31,6 |
| | 2009 | 25,2 | 25,8 | 13,5 | 20,9 |
| | 2010 | 25,9 | 25,7 | 19,2 | 28,0 |
| | 2011 | 34,8 | 36,6 | 36,5 | 37,8 |
| | 2012 | 32,8 | 32,7 | 29,6 | 31,7 |
| | 2013 | 31,3 | 27,9 | 30,8 | 39,7 |
| | 2014 | 32,9 | 32,3 | 31,8 | 33,5 |
| | 2015 | 35,0 | 27,7 | 36,5 | 33,9 |
| | 2016 | 34,8 | 31,2 | 33,2 | 37,7 |
| | 2017 | 34,3 | 32,5 | 32,9 | 35,4 |
| | 2018 | 35,1 | 34,4 | 35,5 | 37,2 |
| 30-34 urte | 2007 | 28,2 | 31,6 | 19,8 | 18,2 |
| | 2008 | 32,0 | 34,7 | 18,2 | 27,1 |
| | 2009 | 21,8 | 22,4 | 11,7 | 18,1 |
| | 2010 | 22,1 | 22,0 | 16,9 | 24,0 |
| | 2011 | 29,1 | 30,6 | 30,5 | 31,6 |
| | 2012 | 27,1 | 27,0 | 24,4 | 26,1 |
| | 2013 | 25,9 | 23,0 | 25,4 | 32,8 |
| | 2014 | 27,4 | 26,9 | 26,4 | 27,9 |
| | 2015 | 29,6 | 23,4 | 30,9 | 28,7 |
| | 2016 | 29,6 | 26,5 | 28,2 | 32,0 |
| | 2017 | 29,2 | 27,6 | 28,0 | 30,1 |
| | 2018 | 30,1 | 29,5 | 30,5 | 31,9 |

GAZTEEN EUSKAL BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO DE LA JUVENTUD

# 12. Etxebizitza babestu bat alokairuan eskuratzeko kostua

## DEFINIZIOA:

18-34 urte bitarteko gazte soldatadun batek bere hileko soldata garbiaren zer proportzio bideratu beharko lukeen bere kabuz etxebizitza babestu baten alokairua ordaintzera (kontratua formalizatzeak ekar litzakeen gainerako gastuak aintzat hartu gabe).

Etxebizitza babestu bat alokairuan eskuratzeak dakarren kostuaren bilakaera EAEn (% / soldata garbia)




Etxebizitza babestu bat alokairuan eskuratzeak dakarren kostuaren bilakaera EAEn, lurralde historikoen arabera (% / soldata garbia)

| | Euskadi | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
|---|---|---|---|---|
| 2007 | 15,1 | 15,3 | 14,9 | 15,3 |
| 2008 | 16,8 | 17,0 | 16,5 | 17,0 |
| 2009 | 15,7 | 15,9 | 15,5 | 16,0 |
| 2010 | 14,3 | 14,5 | 14,1 | 14,6 |
| 2011 | 19,8 | 20,0 | 19,5 | 20,1 |
| 2012 | 24,8 | 25,1 | 24,5 | 24,6 |
| 2013 | 24,4 | 24,7 | 24,1 | 24,8 |
| 2014 | 23,8 | 23,7 | 23,6 | 24,1 |
| 2015 | 26,1 | 26,0 | 25,9 | 25,5 |
| 2016 | 19,9 | 19,9 | 19,8 | 20,1 |
| 2017 | 25,3 | 25,3 | 25,1 | 25,6 |
| 2018 | 23,9 | 23,8 | 23,7 | 24,2 |

**12. taula.** Etxebizitza babestu bat alokairuan eskuratzeak dakarren kostuaren bilakaera, sexuaren eta adin-taldeen arabera (% / soldata garbia)

| | | Euskadi | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
|---|---|---|---|---|---|
| Emakumeak 18-34 urte | 2007 | 17,1 | 17,3 | 16,8 | 17,1 |
| | 2008 | 18,8 | 19,0 | 18,5 | 19,1 |
| | 2009 | 17,0 | 17,2 | 16,8 | 17,3 |
| | 2010 | 15,5 | 15,6 | 15,3 | 15,7 |
| | 2011 | 22,0 | 22,2 | 21,7 | 22,4 |
| | 2012 | 27,6 | 27,9 | 27,2 | 28,1 |
| | 2013 | 25,8 | 26,1 | 25,5 | 26,2 |
| | 2014 | 25,8 | 25,7 | 25,6 | 26,1 |
| | 2015 | 28,5 | 28,4 | 28,3 | 28,8 |
| | 2016 | 22,1 | 22,1 | 22,0 | 22,4 |
| | 2017 | 27,8 | 27,8 | 27,6 | 28,1 |
| | 2018 | 26,3 | 26,3 | 26,1 | 26,6 |
| Gizonak 18-34 urte | 2007 | 13,5 | 13,5 | 13,3 | 13,6 |
| | 2008 | 15,2 | 15,4 | 15,2 | 15,5 |
| | 2009 | 14,4 | 14,5 | 14,2 | 14,6 |
| | 2010 | 13,0 | 13,2 | 12,9 | 13,2 |
| | 2011 | 17,8 | 18,0 | 17,5 | 18,1 |
| | 2012 | 22,1 | 22,3 | 21,8 | 22,5 |
| | 2013 | 22,7 | 23,0 | 22,4 | 23,1 |
| | 2014 | 21,7 | 21,6 | 21,5 | 21,9 |
| | 2015 | 23,5 | 23,4 | 23,3 | 23,8 |
| | 2016 | 18,5 | 18,5 | 18,4 | 18,7 |
| | 2017 | 23,4 | 23,4 | 23,3 | 23,7 |
| | 2018 | 22,2 | 22,2 | 22,1 | 22,5 |
| 18-24 urte | 2007 | 18,8 | 19,0 | 19,0 | 19,1 |
| | 2008 | 22,5 | 22,7 | 22,2 | 22,8 |
| | 2009 | 21,5 | 21,8 | 21,2 | 21,9 |
| | 2010 | 18,8 | 19,0 | 18,9 | 19,1 |
| | 2011 | 29,1 | 29,4 | 28,7 | 29,6 |
| | 2012 | 37,4 | 37,8 | 36,9 | 38,0 |
| | 2013 | 37,0 | 37,4 | 36,5 | 37,6 |
| | 2014 | 34,8 | 34,7 | 34,5 | 35,2 |
| | 2015 | 39,8 | 39,7 | 39,6 | 40,3 |
| | 2016 | 31,8 | 31,8 | 31,6 | 32,2 |
| | 2017 | 40,5 | 40,4 | 40,2 | 41,0 |
| | 2018 | 38,2 | 38,1 | 37,9 | 38,6 |
| 25-29 urte | 2007 | 15,0 | 15,1 | 14,8 | 15,2 |
| | 2008 | 17,2 | 17,4 | 16,9 | 17,5 |
| | 2009 | 15,8 | 16,0 | 15,6 | 16,1 |
| | 2010 | 14,5 | 14,7 | 14,3 | 14,8 |
| | 2011 | 21,1 | 21,3 | 20,8 | 21,4 |
| | 2012 | 26,9 | 27,2 | 26,5 | 27,3 |
| | 2013 | 26,7 | 27,0 | 26,3 | 27,1 |
| | 2014 | 25,4 | 25,4 | 25,3 | 25,7 |
| | 2015 | 27,7 | 27,6 | 27,5 | 28,0 |
| | 2016 | 21,9 | 21,9 | 21,8 | 22,2 |
| | 2017 | 27,8 | 27,7 | 27,6 | 28,1 |
| | 2018 | 26,0 | 26,0 | 25,9 | 26,3 |
| 30-34 urte | 2007 | 12,9 | 13,0 | 12,7 | 13,1 |
| | 2008 | 14,7 | 14,9 | 14,5 | 15,0 |
| | 2009 | 13,7 | 13,9 | 13,5 | 14,0 |
| | 2010 | 12,4 | 12,6 | 12,7 | 12,6 |
| | 2011 | 17,6 | 17,8 | 17,4 | 17,9 |
| | 2012 | 22,2 | 22,4 | 21,9 | 22,5 |
| | 2013 | 22,0 | 22,3 | 21,7 | 22,4 |
| | 2014 | 21,2 | 21,1 | 21,0 | 21,4 |
| | 2015 | 23,4 | 23,4 | 23,3 | 23,7 |
| | 2016 | 18,6 | 18,6 | 18,5 | 18,8 |
| | 2017 | 23,6 | 23,6 | 23,5 | 23,9 |
| | 2018 | 22,3 | 22,3 | 22,2 | 22,6 |

GAZTEEN EUSKAL
BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO
DE LA JUVENTUD



# Emaitza esanguratsuenak

Jarraian, seriearen seigarrena den ikerketa honetan aztertu diren 12 adierazleetako bakoitzaren emaitzak azalduko ditugu.

Txosten honetako emaitzak irakurtzerakoan kontuan izan behar da adierazleak eratzeak abstrakzio- eta sinplifikazio-ariketak eskatzen dituela; beraz, ezin dira kasu indibidualak identifikatu. Bi hipotesi hartzen dira aintzat: alde batetik, gazteak batez besteko soldata jasotzen duela eta, bestetik, erosten edo alokatzen diren etxebizitzak batez besteko prezioan (merkatu libreko batez besteko prezioan edota etxebizitza babestuen batez besteko prezioan, kasuaren arabera) eskuratzen direla. Hau da, soldaten desberdintasunak, bai eta etxebizitzen ezaugarrien arabera (etxebizitza mota, kokalekua, kontserbazio-egoera...) duten prezioen desberdintasunak ere alde batera uzten dira. Baina hori da, izan ere, adierazle hauen indarra eta balioa, hau da, gazte batek, berak bakarrik, etxebizitza erosteko edo alokatzeko dituen ahalbide ekonomikoak modu laburtuan definitu ditzaketela, denboran zehar eta eremu geografiko ezberdinetan aztertu eta konparatzeko.

Era berean, azpimarratu behar da etxebizitza eskuratzeko orduan diruak bakarrik ez duela baldintzatzen, prozesu horretan etxebizitzen eskaintza, gazteen lan-ibilbideek eta bankuak hipoteka-maileguak (eta honen baldintzak) emateko erraztasunek ere, besteak beste, parte hartzen baitute.

# 1. Etxebizitza librea jabetzan hartzeko kostua

2015etik 2018ra etxebizitza librea jabetzan hartzeko kostua antzeko zifretan mantendu da eta 2018an % 54,0koa izan da. Konparatzen badugu datu hori orain dela 10 urte, 2008an, jasotakoarekin ikus dezakegu 40 puntutako jaitsiera izan dela (2008an % 94,4 baitzen). Aurreko urteekiko jaitsiera hori hemendik dator, batez ere: etxebizitza libreen salneurriak nabarmen jaitsi direlako eta interes-tasek ere beherantz egin dutelako.

Lurralde historikoen araberako analisiak erakusten digu kosturik handiena Gipuzkoako gazteek jasan izango dutela (% 61,6) eta, aitzitik, kosturik baxuena Arabakoek (% 42,7), lurralde bakoitzeko etxebizitza libreen salneurrien arteko aldeak direla eta.

Adinean gora egin ahala, batez besteko soldatak igoten dira eta, ondorioz, etxebizitza librea erostearen kostua jaitsi egiten da.

# 2. Etxebizitza librea erosteko gehieneko salneurri onargarria

Kasu honetan, gazte batek bere kabuz etxebizitza bat erosi ahal izateko, etxebizitza horrek izan beharko lukeen gehieneko prezioa kalkulatzen da, betiere sinatutako hipoteka-maileguaren lehen hilerokoa ordaintzeko gazte horrek hileko soldata garbiaren % 30 bidera dezan, eta ez gehiago. Adierazle honek ez du aintzat hartzen etxebizitzen benetako salneurria; aitzitik, balioespen teorikoa egiten du gazteen soldatak eta hipoteka-maileguen baldintzak kontuan hartuta.

2018an gazte batek finantzatu lezakeen gehieneko prezioa, gehiegi zorpetu gabe eta behar diren aurretiko berme guztiak dituela (aurretiko aurrezkiak, diru-sarreren egonkortasuna, eta abar) oinarri hartuta, noski, 113.934 eurokoa izan da. 2013tik 2018ra gorantz egin du gehieneko salneurri onargarriak, batez ere, interes-tasa efektiboak jaitsi direlako eta maileguen amortizazioaldiak luzatu direlako; soldatak nahiko egonkor mantendu diren bitartean (ik. I. eranskina).

Gehieneko salneurri onargarriari dagokionez, ia ez dago alderik lurralde historikoen artean, soldaten arteko aldeak txikiak baitira eta finantzazio-baldintzak berdinak; baina badaude alde aipagarriak gizon eta emakumeen artean eta, bereziki, adin-taldeen artean, horien atzean soldaten ezberdintasunak baitaude; horrela, esaterako, 18 eta 24 urte bitarteko gazte soldatadun batek gehienez 71.222 euroko etxebizitza ordaindu ahal izango luke, baina 30 eta 34 urte bitarteko batek 121.772 euroko bat eros lezake.

# 3. Etxebizitza librearen salneurriaren eta etxebizitza erosteko gehieneko salneurri onargarriaren arteko aldea

Azken hamar urteotan etxebizitza libreen salerosketetan erregistratutako batez besteko prezioek beherantz egin dute eta, era berean, interes-tasak jaitsi egin dira. Bestalde, gazteen batez besteko soldatak nahiko egonkor mantendu dira; horren ondorioz, merkatu librean saldu eta erosten diren etxebizitzen batez besteko prezioaren eta soldatapeko gazte batek eros lezakeen etxebizitzaren gehieneko salneurriaren arteko aldea 2018an, hamar urte lehenago, 2008an izandakoaren erdia da. 2018an Euskadin alde hori 91.274 eurokoa izan da eta 2008an 181.774 eurokoa izan zen.

Lurralde historikoen arteko parekotasun eza oso nabaria da, oso alde handiak baitaude etxebizitza libreen salneurrien artean. Gipuzkoan merkatuko prezioaren eta gazte batek ordain lezakeenaren arteko aldea Bizkaian baino handiagoa da eta, batez ere, Araban baino askoz handiagoa.

Emakume eta 30 urtetik beherakoen artean, zeinen soldatak batezbestekoaren azpitik dauden eta, ondorioz, beraien gehieneko salneurri onargarriak mugatuagoak diren, etxebizitza libreen batez besteko salneurriarekiko aldeak handiagoak dira.

# 4. Etxebizitza libre bat erosteko behar den diru-sarreren igoera

Gazte batek etxebizitzaren merkatura sartzeko aukerak beste ikuspegi batetik neurtzeko asmoz, beste kalkulu hau egin da: zein soldata izan beharko lukeen gazte batek egungo merkatu librearen salneurria duen etxebizitza bat erosi ahal izateko, hipoteka-maileguaren lehen hilerokoa ordaintzeak soldata garbiaren % 30 bideratzea dakarkiola kontuan harturik. Gero, soldata teoriko hori jasotzen duenarekin (gazteen batez besteko soldatarekin) erkatu da. Hortik abiatuta, ezar daiteke etxebizitza libre bat erosteko bere soldata zenbat igo beharko litzatekeen.

2007tik hona adierazle honi dagozkion zifrak nabarmen murriztu dira, etxebizitzen batez besteko salneurriekin batera, baina, hala ere, 2018ko datuekin, soldatapeko gazte baten soldata % 80,1 handiagoa izan beharko litzateke merkatu libreko etxebizitza erosi ahal izateko, hipoteka-maileguaren lehen hilerokoa ordaintzeko gehienez bere soldata garbiaren % 30 bideratuko balu.

Gipuzkoan, non etxebizitzak, batez beste, gainontzeko lurraldeetan baino garestiagoak diren, eta 18 eta 24 urte bitartekoen artean, zeinen soldatak batezbestekoaren azpitik dauden, beharrezko igoera hori % 100ekoa baino handiagoa da.

# 5. Etxebizitza librea erosteko gehieneko azalera onargarria

Gehieneko azalera onargarria kalkulatzeko erlazioan jartzen dira, alde batetik, merkatu librean etxebizitzek duten batez besteko salneurria (metro koadroko) eta, bestetik, gazteen batez besteko soldata. Horrela, posible da ezartzea zenbateko azalera izan beharko lukeen, gehienez, etxebizitza batek, soldatapeko gazte batek erosi ahal izateko, hipoteka-maileguaren lehen hilerokoa ordaintzera soldata garbiaren % 30 bideratuz gero.

2018ko datuekin, Euskadin, gazte batek erosi ahal izango lukeen etxebizitzaren gehieneko azalera 49,2 $m^2$-koa litzateke, baina hori batezbestekoa litzateke, lurralde historikoen artean alde nabariak baitaude: Araban gehienez 68,3 m2-ko etxebizitza eros lezakeen egungo salneurrian, Bizkaian 51,4 $m^2$-koa eta Gipuzkoan, txikiagoa, 40,7 $m^2$-koa.

Aipatzekoa da, hala ere, Euskadin, oro har, gazteek eskura lezaketen gehieneko azalera nabarmen handitu dela azken hamar urteotan; 2007. eta 2008. urteetan ez baitzen 30 $m^2$-ra heltzen.

# 6. Etxebizitza librearen batez besteko azaleraren eta etxebizitza erosteko gehieneko azalera onargarriaren arteko aldea

Euskadiko merkatu librean saldu eta erosi diren etxebizitzen batez besteko azalera eraikiak ia ez du aldaketarik izan azken hamarkadan eta, gutxi gorabehera, 91 $m^2$-koa izan da urteotan.

Konparatzen bada azalera hori (91 $m^2$) gazte batek, hipotekaren lehen hilerokoa ordaintzeko bere soldata garbiaren % 30 baino gehiago erabili gabe, eros lezakeenarekin (49,2 $m^2$ 2018an, aurreko adierazlean ikusi dugun moduan), antzeman dezakegu saltzen diren etxebizitzen batez besteko azaleraren eta gazte batek eros lezakeenaren arteko aldea 42,4 $m^2$-koa da.

Lurraldeen araberako analisiak erakusten digu 2018an lurraldeen arteko ezberdintasunak txikiak izan direla adierazle honi dagokionez (Araban adierazleak neurtzen duen aldea 38,0 $m^2$-koa izan da, Bizkaian 41,2 $m^2$-koa eta Gipuzkoan 43,5 $m^2$-koa). Aurreko adierazlean ikusi dugunez, Arabako gazteek Bizkaikoek baino etxebizitza handiagoak eros litzakete eta Bizkaikoek Gipuzkoarrek baino handiagoak, baina egia da, berez, Araban saltzen diren etxebizitzak, batez beste, Bizkaikoak baino handiagoak izaten direla eta azken horiek Gipuzkoakoak baino handiagoak (Araban saldutako etxebizitzek, batez beste, 106 $m^2$ dituzte, Bizkaikoek 92,6 $m^2$ eta Gipuzkoakoek 84,2 $m^2$).

# 7. Etxebizitza librea alokatzeko kostua

Gaur egun etxebizitza librea alokatzea ez da gauza erraza gazte batentzat; alokatzeko eskaintza erostekoa baino askoz urriagoa izateaz gain[1], arrazoi ekonomikoak ere tartean badaudelako. Serie historikoak daudenetik lehenengo aldiz, 2018an etxebizitza libreen batez besteko hileko errenta Euskadin 1.000 eurotik gora dago (1.028 eurokoa izan da, hain zuzen ere).

Gazteen soldatak nahiko egonkor mantendu direnez, alokairu-errenten igoera horrek etxebizitza libre bat alokatzeko kostua garestitu egin du, aurreko urteekiko. 2018ko datuekin, Euskadin 18 eta 34 urte bitarteko gazte soldatadun batek, bakarrik emantzipatu nahi izanez gero, bere hileko soldata garbiaren % 77,0 bideratu beharko luke alokairu-errenta ordaintzera.

Berriro ikusten da Gipuzkoa dela gazteek, bere kabuz, merkatu librean etxebizitza eskuratzeko zailtasun handienak dituen lurraldea. Gipuzkoako gazteek bere soldataren % 93,1 gorde beharko lukete hileko alokairu-errenta ordaintzeko. 18 eta 24 urte bitarteko gazteen kasuan alokatzeko kostua are handiagoa litzateke: % 123,1.

# 8. Etxebizitza librea alokatzeko gehieneko errenta onargarria

Erosketaren hipotesiaren izenkideak bezala, etxebizitza librea alokatzeko gehieneko errenta onargarriak honakoa adierazten du: gazte batek hilean ordaindu ahal izango lukeena bere soldataren % 30 baino gehiago erabili gabe. Kasu honetan finantziazio-baldintzek ez dutenez parte hartzen, adierazle honen balioa soldata garbiaren % 30 da, zuzenean. Alokatzen denean % 30eko arau hori ez da hipotekaren kasuan bezain zorrotz betetzen, baina higiezinen agentziek gero eta gehiago erabiltzen dute alokairuan eskainitako etxebizitza batek jasotzen dituen eskaera horiek baztertzeko.

Euskadin, 18 eta 34 urte bitarteko gazteen soldaten bilakaera nahiko egonkorra izan da urte hauetan eta, hori dela eta, etxebizitza librea alokatzeko gehieneko errenta onargarria 400 euro ingurukoa izan da serie osoan.

Adinean gora egin ahala soldata handiagoak jasotzen dira; beraz, gehieneko errenta onargarria ere altuagoa izaten da. Bestalde, gizonek ordaindu ahal izango luketen gehieneko errenta onargarria emakumeek ordain lezaketena baino altuxeagoa da.

[1] Etxebizitzaren Euskal Behatokiak osatzen duen Higiezinen Eskaintzaren Inkestaren (HEI), 2018ko laugarren hiruhilekoko datuen arabera, Euskadin, 2018an, 1.000 etxebizitza baino pixka bat gehiago zeuden libre alokatzeko; erosteko, ordea, 20.000 baino gehiago. <http://www.etxebide.euskadi.eus/estatistika/higiezinen-eskaintzaren-inkestaren-taula-estatistikoak-hei-2018ko-4-hiruhilekoa/x39-ovse01/eu/> [2019ko abuztuaren 30ean egindako kontsulta].

## 9. Merkatuko alokairu-errentaren eta etxebizitza alokatzeko gehieneko errenta onargarriaren arteko aldea

Soldatak, eta beraiekin batera, gehieneko errenta onargarria, nahiko egonkor mantendu badira ere, merkatu librean alokairu-errentak gero eta garestiagoak dira. Horren ondorioz, gazte batek gehienez ordain dezakeen errentaren eta merkatu libreko batez besteko errentaren arteko aldea nabarmen zabaltzen ari da eta 2018an 628 eurokoa izan da.

Gipuzkoan alokatzeko eskaintzen diren etxebizitza libreen batez besteko errenta 1.230 eurokoa da; hori dela eta, lurralde horretan gazteek ordain dezaketenarekiko arrakala 834 eurokoa da. Aitzitik, Araban, non etxebizitza libreen batez besteko alokairu-errenta 861 eurokoa den, merkatuaren eta gehieneko errenta onargarriaren arteko aldea 460 eurokoa da. Bizkaian, aldiz, arrakala 559 eurokoa da.

## 10. Etxebizitza libre bat alokatzeko behar den diru-sarreren igoera

Adierazle honek hauxe adierazten du: zenbat igo beharko litzatekeen gazteen batez besteko soldata, hilean horren % 30 baino gehiago erabili gabe, merkatuko prezioan alokatu ahal izateko. Euskadin 18 eta 34 urte bitartekoek jasotzen duten batez besteko soldata baino % 156,6 handiagoa jaso beharko lukete. Lurralde historiko guztietan, bai eta sexuaren eta adin-taldeen araberako talde guztietan ere, behar den igoera % 100ekoa baino handiagoa da.

## 11. Etxebizitza babestu bat jabetzan eskuratzeko kostua

Euskadin etxebizitza babestu bat eskuratzeko finantziazio-baldintzak merkatu librera jota eskura daitezkeenak baino askoz lagungarriagoak dira gazteentzat. 2018an, Euskadin, 18 eta 34 urte bitarteko gazte batentzat pisu babestua erosteko kostua % 32,2koa da, hau da, hilero bere soldata garbiaren ehuneko hori bideratu beharko luke hipotekaren kuota ordaintzera. Ehuneko hori etxebizitza librea erosteko kostuarena baino 22 puntu txikiagoa da.

Kasu honetan ere badaude alde batzuk lurralde historikoen, sexuaren edo adin-taldeen arabera, baina etxebizitza librea eskuratzearen inguruko adierazleek erakusten dituztenak baino askoz txikiagoak.

# 12. Etxebizitza babestu bat alokairuan eskuratzeko kostua

Etxebizitza babestu bat alokatzea da Euskadiko 18 eta 34 urte bitarteko gazte baten ahalbide ekonomikoetara hobekien moldatzen den aukera, eta hori da, gainera, gaur egun Euskadiko etxebizitza zerbitzu publikoetara jotzen dutenek gehien eskatzen dutena[2]. 2018an etxebizitza babestu baten alokairu-errenta ordaintzeak gazteen batez besteko soldata garbiaren % 23,9 bideratzea eskatuko luke.

Etxebizitza librea alokairuan eskuratzeko kostua, etxebizitza babestua alokatzeko kostuarekin konparatuz gero, ikus dezakegu azken hau 53 puntu txikiagoa dela.

## Laburbilduz

Etxebizitza librea jabetzan hartzeko kostua, hau da, 18 eta 34 urte bitarteko gazte batek merkatu librean etxebizitza bat erosteko hipotekaren kuota ordaintzera bideratu beharko lukeen soldata garbiaren proportzioa, nabarmen jaitsi da azken 10 urteotan, eta 2008an % 94,4 izatetik 2018an % 54,4 izatera pasatu da.

Etxebizitza librea alokatzeko kostua, aldiz, handitu egin da, eta 2018an, alokairu-errenta ordaintzeko, gazteen batez besteko soldataren % 77,0 bideratzea eskatu du.

Etxebizitza librea jabetzan edo alokairuan eskuratzeko kostuen aldaketa horiek, batez ere, arrazoi hauengatik gertatu dira: urte hauetan etxebizitza libreen batez besteko salneurriak jaitsi egin direlako, hipoteka-maileguetan ezartzen diren interes-tasak ere jaitsi egin direlako eta, aldiz, etxebizitza libreen alokairu-errentak igo egin direlako.

Etxebizitza babestuak eskuratze-kostu onargarriagoak dakartza soldatapeko gazteentzat. 2018an etxebizitza babestua erosteak hileko soldata garbiaren % 32,2 hipoteka ordaintzera bideratzea eskatu du, eta etxebizitza babestua alokatzeak are gutxiago, alokairu-errenta ordaintzera soldataren % 23,9 bideratzea baitakar. Etxebizitza babestuak, beraz, aukera ematen die bakarrik emantzipatu nahi duten gazteei beren kontura bizitzeko gainesfortzu ekonomikoaren arriskurik gabe.

Gipuzkoako gazteak dira kosturik handienak dituztenak merkatu librera joz gero, etxebizitza libreak garestiagoak baitira Gipuzkoan. Etxebizitza babestua eskuratzeko kostua, aldiz, antzekoa da hiru lurralde historikoetan.

Adinean gora egin ahala soldatak igo egiten dira, batez beste, eta ondorioz etxebizitza eskuratzeko kostua txikiagoa izaten da, bai erostea aukeratzen bada, bai alokatzea nahiago bada. Baina gizonen eta emakumeen arteko soldata-aldeak direla eta (batez besteko soldatez ari gara), emakumeek aukera gutxiago dituzte bakarrik emantzipatzeko.

[2] 2018ko lehenengo seihilekoan Etxebiden erregistratutako etxebizitza babestuaren eskaeren % 81,3k alokairua aukeratu zuten, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak "Euskadin etxebizitza eskuratzeko eta aldatzeko premiei buruzko txostena" izeneko txostenean emandako datuen arabera (https://www.etxebide.euskadi.eus/x39-ovpe02/es/contenidos/informacion/ovv_necesidades/eu_ovv_ana/index.Shtml) [2019ko urriaren 9an egindako kontsulta].

GAZTEEN EUSKAL BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO DE LA JUVENTUD

# I. Eranskina



## Adierazleak eratzeko erabilitako datuak

**1.** 18-34 urte bitarteko gazte soldatadunen batez besteko hileko soldata garbia, sexuaren arabera (eurotan)

| | | Euskadi | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
|---|---|---|---|---|---|
| Guztira 18-34 urte | 2007 | 1.286 | 1.272 | 1.303 | 1.265 |
| | 2008 | 1.394 | 1.379 | 1.413 | 1.371 |
| | 2009 | 1.399 | 1.384 | 1.419 | 1.377 |
| | 2010 | 1.424 | 1.409 | 1.444 | 1.401 |
| | 2011 | 1.411 | 1.395 | 1.430 | 1.388 |
| | 2012 | 1.390 | 1.375 | 1.409 | 1.402 |
| | 2013 | 1.365 | 1.350 | 1.383 | 1.343 |
| | 2014 | 1.372 | 1.374 | 1.381 | 1.356 |
| | 2015 | 1.325 | 1.327 | 1.334 | 1.354 |
| | 2016 | 1.347 | 1.350 | 1.356 | 1.332 |
| | 2017 | 1.302 | 1.304 | 1.311 | 1.287 |
| | 2018 | 1.336 | 1.338 | 1.345 | 1.320 |
| Emakumeak 18-34 urte | 2007 | 1.138 | 1.125 | 1.153 | 1.134 |
| | 2008 | 1.245 | 1.231 | 1.262 | 1.225 |
| | 2009 | 1.290 | 1.276 | 1.308 | 1.269 |
| | 2010 | 1.318 | 1.304 | 1.337 | 1.297 |
| | 2011 | 1.269 | 1.255 | 1.287 | 1.249 |
| | 2012 | 1.250 | 1.237 | 1.268 | 1.230 |
| | 2013 | 1.290 | 1.276 | 1.308 | 1.269 |
| | 2014 | 1.266 | 1.268 | 1.275 | 1.251 |
| | 2015 | 1.213 | 1.215 | 1.221 | 1.199 |
| | 2016 | 1.210 | 1.213 | 1.219 | 1.196 |
| | 2017 | 1.185 | 1.187 | 1.193 | 1.171 |
| | 2018 | 1.212 | 1.214 | 1.220 | 1.197 |
| Gizonak 18-34 urte | 2007 | 1.435 | 1.433 | 1.454 | 1.425 |
| | 2008 | 1.533 | 1.516 | 1.539 | 1.508 |
| | 2009 | 1.529 | 1.513 | 1.550 | 1.505 |
| | 2010 | 1.566 | 1.549 | 1.587 | 1.540 |
| | 2011 | 1.571 | 1.554 | 1.592 | 1.546 |
| | 2012 | 1.562 | 1.545 | 1.583 | 1.537 |
| | 2013 | 1.467 | 1.451 | 1.487 | 1.443 |
| | 2014 | 1.505 | 1.507 | 1.515 | 1.487 |
| | 2015 | 1.470 | 1.472 | 1.480 | 1.453 |
| | 2016 | 1.447 | 1.449 | 1.457 | 1.430 |
| | 2017 | 1.407 | 1.409 | 1.416 | 1.390 |
| | 2018 | 1.435 | 1.437 | 1.445 | 1.418 |

Iturria: guk geuk osatu dugu, Estatistika Institutu Nazionalaren (EIN) Lan Kostuaren Hiruhileroko Estatistikako (LKHE), Soldata Egiturari buruzko Inkestako (SEI), Soldata Egiturari buruzko Urteroko Inkestako (SEUI), Bizi-baldintzei buruzko Inkestako (EU-SILC) eta Biztanleria Aktiboaren Inkestako (BAI) datuak oinarri hartuta.

**1.** 18-34 urte bitarteko gazte soldatadunen batez besteko hileko soldata garbia, adin-taldeen arabera (eurotan)

| | | Euskadi | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
|---|---|---|---|---|---|
| Guztira 18-34 urte | 2007 | 1.286 | 1.272 | 1.303 | 1.265 |
| | 2008 | 1.394 | 1.379 | 1.413 | 1.371 |
| | 2009 | 1.399 | 1.384 | 1.419 | 1.377 |
| | 2010 | 1.424 | 1.409 | 1.444 | 1.401 |
| | 2011 | 1.411 | 1.395 | 1.430 | 1.388 |
| | 2012 | 1.390 | 1.375 | 1.409 | 1.402 |
| | 2013 | 1.365 | 1.350 | 1.383 | 1.343 |
| | 2014 | 1.372 | 1.374 | 1.381 | 1.356 |
| | 2015 | 1.325 | 1.327 | 1.334 | 1.354 |
| | 2016 | 1.347 | 1.350 | 1.356 | 1.332 |
| | 2017 | 1.302 | 1.304 | 1.311 | 1.287 |
| | 2018 | 1.336 | 1.338 | 1.345 | 1.320 |
| 18-24 urte | 2007 | 1.033 | 1.022 | 1.021 | 1.016 |
| | 2008 | 1.041 | 1.030 | 1.055 | 1.024 |
| | 2009 | 1.022 | 1.010 | 1.036 | 1.005 |
| | 2010 | 1.084 | 1.072 | 1.078 | 1.067 |
| | 2011 | 960 | 949 | 973 | 944 |
| | 2012 | 923 | 913 | 936 | 909 |
| | 2013 | 899 | 889 | 912 | 885 |
| | 2014 | 938 | 940 | 945 | 928 |
| | 2015 | 867 | 868 | 873 | 857 |
| | 2016 | 842 | 844 | 848 | 832 |
| | 2017 | 814 | 815 | 819 | 804 |
| | 2018 | 835 | 837 | 841 | 825 |
| 25-29 urte | 2007 | 1.296 | 1.282 | 1.314 | 1.275 |
| | 2008 | 1.361 | 1.347 | 1.380 | 1.339 |
| | 2009 | 1.388 | 1.373 | 1.407 | 1.366 |
| | 2010 | 1.405 | 1.390 | 1.424 | 1.383 |
| | 2011 | 1.324 | 1.309 | 1.342 | 1.302 |
| | 2012 | 1.284 | 1.270 | 1.301 | 1.263 |
| | 2013 | 1.249 | 1.236 | 1.267 | 1.229 |
| | 2014 | 1.283 | 1.285 | 1.291 | 1.268 |
| | 2015 | 1.247 | 1.249 | 1.255 | 1.232 |
| | 2016 | 1.223 | 1.226 | 1.232 | 1.209 |
| | 2017 | 1.186 | 1.188 | 1.194 | 1.172 |
| | 2018 | 1.225 | 1.227 | 1.233 | 1.211 |
| 30-34 urte | 2007 | 1.505 | 1.489 | 1.526 | 1.481 |
| | 2008 | 1.588 | 1.570 | 1.609 | 1.562 |
| | 2009 | 1.601 | 1.584 | 1.623 | 1.575 |
| | 2010 | 1.642 | 1.624 | 1.611 | 1.616 |
| | 2011 | 1.585 | 1.567 | 1.606 | 1.559 |
| | 2012 | 1.557 | 1.540 | 1.579 | 1.532 |
| | 2013 | 1.513 | 1.496 | 1.534 | 1.488 |
| | 2014 | 1.542 | 1.544 | 1.552 | 1.524 |
| | 2015 | 1.472 | 1.475 | 1.482 | 1.455 |
| | 2016 | 1.441 | 1.443 | 1.451 | 1.424 |
| | 2017 | 1.394 | 1.396 | 1.403 | 1.378 |
| | 2018 | 1.428 | 1.430 | 1.438 | 1.411 |

Iturria: guk geuk osatu dugu, Estatistika Institutu Nazionalaren (EIN) Lan Kostuaren Hiruhileroko Estatistikako (LKHE), Soldata Egiturari buruzko Inkestako (SEI), Soldata Egiturari buruzko Urteroko Inkestako (SEUI), Bizi-baldintzei buruzko Inkestako (EU-SILC) eta Biztanleria Aktiboaren Inkestako (BAI) datuak oinarri hartuta.

## 2. Hipoteken interes-tasak eta amortizazio-epeak

### Etxebizitza librea

| | Hipoteka-maileguen interes-tasak | Etxebizitza erosteko kontratatutako hipoteka-mailegu berrien batez besteko iraunaldia (hilabeteak) |
|---|---|---|
| 2007 | % 5,2 | 336 |
| 2008 | % 5,9 | 321 |
| 2009 | % 3,4 | 292 |
| 2010 | % 2,8 | 301 |
| 2011 | % 3,4 | 297 |
| 2012 | % 3,4 | 279 |
| 2013 | % 3,4 | 269 |
| 2014 | % 3,0 | 272 |
| 2015 | % 2,2 | 274 |
| 2016 | % 2,0 | 277 |
| 2017 | % 1,9 | 280 |
| 2018 | % 1,9 | 283 |

Iturria: Espainiako Bankua eta Jabetzaren, Ondasun Higigarrien eta Merkataritza Ondasunen Erregistratzaileen Espainiako Elkargoa.

### Etxebizitza babestua

| | Babes publikoko etxebizitza bat erosteko etxebizitzaren prezioaren % 80 gainditzen ez duen hipoteka-maileguen urteko interes-tasa efektiboa | Hipoteka-maileguen amortizazio-epea (hilabeteak) |
|---|---|---|
| 2007 | % 4,6 | 360 |
| 2008 | % 5,3 | 360 |
| 2009 | % 2,0 | 360 |
| 2010 | % 2,0 | 360 |
| 2011 | % 3,3 | 360 |
| 2012 | % 2,6 | 360 |
| 2013 | % 2,3 | 360 |
| 2014 | % 2,2 | 360 |
| 2015 | % 1,9 | 360 |
| 2016 | % 2,1 | 360 |
| 2017 | % 1,8 | 360 |
| 2018 | % 1,8 | 360 |

Iturria: guk geuk osatu dugu, kontuan izanik Etxebidek (Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuak) argitaratutako interes-tasa efektiboak eta amortizazio-epeen kalkulua.

**3.** Etxebizitza librearen eta etxebizitza babestuaren m²-ko batez besteko salneurria (euro / metro karratu eraikiko)

Etxebizitza librea*

| | Euskadi | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
|---|---|---|---|---|
| 2007 | 3.132 | 2.480 | 3.224 | 3.280 |
| 2008 | 3.008 | 2.365 | 3.103 | 3.192 |
| 2009 | 2.796 | 2.046 | 2.917 | 3.048 |
| 2010 | 2.896 | 1.949 | 3.010 | 3.253 |
| 2011 | 2.779 | 2.018 | 2.959 | 2.893 |
| 2012 | 2.532 | 2.014 | 2.584 | 2.738 |
| 2013 | 2.353 | 1.753 | 2.299 | 2.696 |
| 2014 | 2.248 | 1.734 | 2.173 | 2.593 |
| 2015 | 2.198 | 1.563 | 2.157 | 2.503 |
| 2016 | 2.247 | 1.564 | 2.173 | 2.663 |
| 2017 | 2.279 | 1.628 | 2.161 | 2.792 |
| 2018 | 2.316 | 1.672 | 2.232 | 2.769 |

* Barnean pisu berriak zein bigarren eskukoak edota familia bakarreko etxebizitzak sartzen dira.
Iturria: Notariotzaren Kontseilu Nagusia.

Etxebizitza babestua*

| | Euskadi | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
|---|---|---|---|---|
| 2007 | 1.308 | 1.408 | 1.266 | 1.184 |
| 2008 | 1.385 | 1.314 | 1.153 | 1.420 |
| 2009 | 1.424 | 1.367 | 851 | 1.506 |
| 2010 | 1.430 | 1.327 | 1.323 | 1.785 |
| 2011 | 1.597 | 1.522 | 1.921 | 1.912 |
| 2012 | 1.595 | 1.459 | 1.761 | 1.722 |
| 2013 | 1.615 | 1.362 | 1.742 | 2.091 |
| 2014 | 1.835 | 1.553 | 1.930 | 1.951 |
| 2015 | 1.945 | 1.419 | 2.058 | 2.076 |
| 2016 | 1.861 | 1.522 | 1.896 | 2.082 |
| 2017 | 1.873 | 1.569 | 1.947 | 2.082 |
| 2018 | 1.859 | 1.670 | 1.968 | 2.246 |

* Datuak pisu babestuei dagozkie, etxebizitzaren sustapen publikoaren barruan gehien-gehienak pisuak baitira.
Iturria: Notariotzaren Kontseilu Nagusia.

## 4. Etxebizitza librearen eta etxebizitza babestuaren batez besteko salneurria (osoa)

### Etxebizitza librea*

| | Euskadi | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
|---|---|---|---|---|
| 2007 | 279.702 | 262.041 | 276.411 | 292.479 |
| 2008 | 266.429 | 238.225 | 266.683 | 280.464 |
| 2009 | 247.077 | 205.915 | 248.459 | 267.851 |
| 2010 | 248.686 | 184.233 | 253.342 | 275.832 |
| 2011 | 250.341 | 205.285 | 256.367 | 262.178 |
| 2012 | 223.416 | 204.526 | 222.926 | 233.719 |
| 2013 | 206.579 | 176.077 | 199.999 | 228.053 |
| 2014 | 198.636 | 171.298 | 191.938 | 219.398 |
| 2015 | 196.046 | 167.086 | 192.767 | 210.393 |
| 2016 | 201.321 | 153.968 | 197.167 | 226.410 |
| 2017 | 202.483 | 159.191 | 193.029 | 235.610 |
| 2018 | 205.208 | 162.635 | 199.957 | 231.163 |

* Barnean pisu berriak zein bigarren eskukoak edota familia bakarreko etxebizitzak sartzen dira.
Iturria: Notariotzaren Kontseilu Nagusia.

### Etxebizitza babestua*

| | Euskadi | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
|---|---|---|---|---|
| 2007 | 103.324 | 114.740 | 73.407 | 65.720 |
| 2008 | 114.457 | 122.979 | 66.128 | 95.496 |
| 2009 | 118.756 | 120.397 | 64.761 | 97.208 |
| 2010 | 122.133 | 119.891 | 91.746 | 130.209 |
| 2011 | 130.830 | 136.039 | 138.835 | 139.785 |
| 2012 | 131.169 | 129.358 | 119.679 | 124.548 |
| 2013 | 127.367 | 112.020 | 126.856 | 158.682 |
| 2014 | 138.710 | 136.405 | 134.651 | 139.559 |
| 2015 | 149.273 | 118.336 | 156.769 | 142.868 |
| 2016 | 142.073 | 127.391 | 136.434 | 152.094 |
| 2017 | 140.556 | 133.315 | 135.854 | 143.207 |
| 2018 | 148.759 | 145.997 | 151.525 | 155.804 |

* Datuak pisu babestuei dagozkie, etxebizitzaren sustapen publikoaren barruan gehien-gehienak pisuak baitira.
Iturria: Notariotzaren Kontseilu Nagusia.

## 5. Saldutako etxebizitza libreen eta babestuen eraikitako batez besteko azalera (m²-tan)

### Etxebizitza librea*

| | Euskadi | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
|---|---|---|---|---|
| 2007 | 91,7 | 111,8 | 87,3 | 90,4 |
| 2008 | 90,7 | 106,0 | 86,5 | 90,2 |
| 2009 | 90,0 | 105,4 | 85,8 | 88,7 |
| 2010 | 88,1 | 99,5 | 85,5 | 86,4 |
| 2011 | 93,1 | 108,8 | 88,2 | 93,4 |
| 2012 | 90,1 | 104,5 | 88,0 | 86,5 |
| 2013 | 90,5 | 109,3 | 88,5 | 86,4 |
| 2014 | 91,3 | 107,9 | 90,4 | 86,0 |
| 2015 | 91,3 | 115,0 | 90,6 | 84,7 |
| 2016 | 91,7 | 103,0 | 92,6 | 85,9 |
| 2017 | 91,5 | 105,1 | 91,9 | 85,1 |
| 2018 | 91,6 | 106,2 | 92,6 | 84,2 |

* Barnean pisu berriak zein bigarren eskukoak edota familia bakarreko etxebizitzak sartzen dira.
Iturria: Notariotzaren Kontseilu Nagusia.

### Etxebizitza babestua*

| | Euskadi | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
|---|---|---|---|---|
| 2007 | 79,0 | 85,5 | 72,1 | 74,0 |
| 2008 | 82,6 | 93,1 | 72,4 | 75,8 |
| 2009 | 83,4 | 88,7 | 79,7 | 74,2 |
| 2010 | 85,4 | 89,8 | 75,7 | 77,1 |
| 2011 | 81,9 | 89,9 | 75,8 | 77,1 |
| 2012 | 82,3 | 89,5 | 72,4 | 75,5 |
| 2013 | 78,9 | 83,8 | 75,3 | 77,1 |
| 2014 | 75,6 | 88,1 | 71,4 | 73,8 |
| 2015 | 76,8 | 84,5 | 76,7 | 70,8 |
| 2016 | 76,4 | 84,1 | 73,8 | 74,7 |
| 2017 | 75,0 | 85,3 | 71,6 | 71,9 |
| 2018 | 80,0 | 87,5 | 77,9 | 71,5 |

* Datuak pisu babestuei dagozkie, etxebizitzaren sustapen publikoaren barruan gehien-gehienak pisuak baitira.
Iturria: Notariotzaren Kontseilu Nagusia.

## 6. Etxebizitza libreen eta babestuen batez besteko hileko alokairu-errenta

### Etxebizitza librea

| | Euskadi | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
|---|---|---|---|---|
| 2007 | 890 | 909 | 875 | 901 |
| 2008 | 969 | 895 | 969 | 1.087 |
| 2009 | 875 | 837 | 881 | 941 |
| 2010 | 922 | 828 | 924 | 1.005 |
| 2011 | 896 | 831 | 882 | 994 |
| 2012 | 856 | 790 | 866 | 880 |
| 2013 | 825 | 744 | 839 | 822 |
| 2014 | 845 | 729 | 861 | 819 |
| 2015 | 872 | 740 | 880 | 912 |
| 2016 | 880 | 774 | 889 | 869 |
| 2017 | 944 | 710 | 956 | 1.028 |
| 2018 | 1.028 | 861 | 962 | 1.230 |

Iturria: Etxebizitzaren Euskal Behatokiaren Higiezin Eskaintzari buruzko Inkesta.

### Etxebizitza babestua*

| | Euskadi | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
|---|---|---|---|---|
| 2007 | 194 | 194 | 194 | 194 |
| 2008 | 234 | 234 | 234 | 234 |
| 2009 | 220 | 220 | 220 | 220 |
| 2010 | 204 | 204 | 204 | 204 |
| 2011 | 279 | 279 | 279 | 279 |
| 2012 | 345 | 345 | 345 | 345 |
| 2013 | 333 | 333 | 333 | 333 |
| 2014 | 326 | 326 | 326 | 326 |
| 2015 | 345 | 345 | 345 | 345 |
| 2016 | 268 | 268 | 268 | 268 |
| 2017 | 329 | 329 | 329 | 329 |
| 2018 | 319 | 319 | 319 | 319 |

* Datuak pisu babestuei dagozkie, etxebizitzaren sustapen publikoaren barruan gehien-gehienak pisuak baitira.
Iturria: Etxebizitzaren Euskal Behatokiaren Higiezin Eskaintzari buruzko Inkesta. Inkesta honek ez du ematen pisu babestuei dagokienean lurralde historikoen araberako daturik; beraz, lurralde historiko bakoitzari EAEko batez besteko balioa esleitu zaio.

GAZTEEN EUSKAL BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO DE LA JUVENTUD

# II. Eranskina



## Metodologia oharrak

# Adierazleak eratzeko erabilitako datuen iturria

## 1. Etxebizitza librea jabetzan hartzeko kostua

